



AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK -BOZKETAREN EMAITZAK-

Etxauriko Udalak aurrekontu Parte-Hartzaileen bigarren edizioa jarri du martxan dakizuen bezala, eta horrela, bozketa epea ireki zen (apirilaren 14tik 28ra bitarte) 16 urtetik gorako Etxaurin erroldatutako pertsona guztientzat.

Hiru proposamenetatik bat aukeratzea zen helburu: **plazako parkea estali, Aldabeako zonaldea egokitu edo gimnasio berri baterako aparatuak erostea.**

150 lagunek eman duzue botoa, **67 boto** online bidez eta **83** modu presentzial batean, eta honako hau izan da emaitza:

Plazako parkea estali: **38 boto**

Aldabeako zonaldea egokitu: **85 boto**

Gimnasio berri baterako aparatuak erosi: **27 boto**

Botoak kontuan hartuta, 2021ean egingo den proposamena, aurrekontu Parte-Hartzaileetarako 12000 euroekin **ALDABEAKO ZONALDEA EGOKITZEA** izango da.

ESKERRIK ASKO PARTE HARTZEAGATIK!

Etxaurin, 2021eko apirilaren 30 ean

Idoia Aritzala Etxarren
Etxauriko alkatea

